

Txuspo Poyoren itzulpen txarrari buruzko 13 modu

Nico Israelek egina

1. “Animazioa”, Txuspo Poyok, ingelera erabiliz, bere ama hizkuntza ez den arren, nahiz berarekin duela zenbait urte ohitu, ondoko hau idatzi dit: “gezi gozo bat da, hezkuntza-programatik gerra garaiko gatazkaraino doana”. Nik adierazpen hau neurtzen dut gaztelera itzulita, eta gaztelera, nire arbaso judu sefardien hizkuntza bazen ere, ez da nire ama hizkuntza; beraz gero, berriz, nire hizkuntzara ekartzen dut, Amerikako ingelera garaikidera alegia, hizkuntzen artean nola bidaiatzen duen ikusiz.

2. Ziur egoteko, animazioak, ilustrazio estatiko aitzinekoa den aldetik, funtzio pedagogikoa dauka (“hezkuntza programa bat”?): Historian zehar, animazioa erabili da zerbait frogatzeko, maiz izan da animatu gura duen testu idatzia, animatu, literalki, izpiritua emateko, anima latinez, aire, arnas, bizitza, arima, gogamen.

Estatika dinamika bilakatuz, animazioak “hezi” dezake zinez -- iraka-tsi, aurrera eraman, hazi -- eta, aldi berean, entretenitu eta gozamina ekarri. Baina animate hitzak – ingelesez behintzat – “ekintza sustatu” ere esan nahi du; zirikatze, sentimenduak kilikatze, etsaitasunezko sentimenduak barne. Esanahi hau anima hitzaren osagarri maskulintotik datorkio, animus hitzetik hain zuzen.

Eta ikus dezagun nola “animazio” etimologiko horrek bultzatzen gaituen “gerra garaiko gatazka” bera sorraraz dezaketen sentimenduei buruz pentsatzera, zeinak, historian zehar, mediumarena ere egin duen, zoetropearen eta kenetoscopearen garaietatik hasita (gatazka eta arriskua nabarmentzeko zuten joera goiztiarrarekin, propaganda egiteko zuten joerarekin batera), Disneyren garaietatik (zeinaren politikari buruz asko idatzi baita, gehiegi agian), Warner Anaien Bugs Bunny marrazki bizidunetaraino. Azken hauek, Gerra Hotzaren amaieran hazitako ume guztien modura, ama-esnea bezala edan nituen. Bugs adore eta kemen amerikarraren epitomea izan zen; batzuetan etsai gisa izan zuen hartz errusiar erraldoi eta nabarmena motela eta gaiztoa zen.

3. Baina, zer gertatzen da Poyoren “gezi gozoarekin”? Baina gezi bat, hiltzeko edo gutxienez zauritzeko diseinatuta dagoen gorrotoaren irudia, nolatan izan daiteke, aldi berean, “gozoa”? (Berehala oroitzen naiz Kupidorekin eta bere gezi erotikoeekin. Hauek, gerra eta maitasunaren arteko ulermen klasikoan dagoen inbrikatze sakona uzten dute agerian berehala, baina, aldi berean, Psykeren istorioa ere gogoratzen dut. Honek begiratu bat egin zion bere maitale Kupidori, eta abandonatua izan zen, bihotza puskatu zion: Bananduta mantendu behar al dira beti adimendua eta maitasuna?) Eta nola “joan” daiteke gezi hau -gozokiro- “hezkuntza programatik gerra garaiko gatazkaraino”? Nire baitan galdetzen dut “gezi gozo” hau hizkuntza espainiarraren esamolde bat den edo Txuspo poetikoa izaten ari den, eta galdetzen dut, halaber, nola esaten den “esamolde” hau Euskaraz, Francoren erregimenagatik debekatutako baina oraindik Bilbon, Txuspo egun bizi den hirian, mintzatzen den (eta sustatzen den) euskal hizkuntza. Ingelesez, “gezi gozoa” oximoroi bat da, diskurtsoko figura bat zeinean “kontrajarriak diren edo nabarmen kontraesankorrak diren bi termino lotzen baitira enfasi gehiago emate aldera”. Baina oximoroi bezala ere, ez dabil, hitzek ez dute zeharkatuko: “Ez dute “pasatuko” animazioko Gezi gozoa”, hau baldin bada Txuspok buruan zerabilena “originalean”, berez ezin da itzuli; edo, itzulitakoan, ezin da zuzentasunez aldatu hizkuntza batetik bestera.

4. Walter Benjamin, Alemaniako judu bizkorra, 1940ko irailaren 26an Espainia eta Frantziaren arteko mugan, Puerto Boun alegia, Nazien erregimenetik ihes egin nahi zuenean, hartu zuen morfina “gezi gozoak” hila geratu zen. Bere heriotza, apokrifoa izan daitekeen istorio baten arabera, muga-guardia espainiar batek esan zuenaren okerkuntza partzial bati egotzi behar zaio: Bisa legitimoak bazituzten ere, errefuxiatu taldea ezin zela “igaro” Francok menperatutako Espainiako “askatasunerantz” eta Estatu Batuetara alde egin zuen. Bukaera patetiko eta prosaikoa Espainiari buruz hain burutsu idatzi zuen pentsalari batentzat (ikusirik Ibizako Ondorengotza bere Lanen Hautaketa liburuan, eta, gehien bat, *Espainia, 1932* hausnarketa liluragarria) eta, askoz ezagunago egin zuen lanean, itzulpenaren galderan. Hemen, Baudelaireren Tableaux Parisiens liburuaren alemanez egin zuen itzulpenean, Benjaminek iradokitzen du ondoko galdera: Lan bat itzuli badaiteke, esanahi bikoitza dauka? Edo: Itzultzaile egoki bat aurkitua izango da irakurle gehienek aldetik? Edo, egokiago: Bere izaera itzulgarria da eta, ondorioz, moduaren garrantzia dela eta, deigarria ere bada? “

5. Benjaminek itzulpenari buruz egiten dituen galderek “originala” eta “kopia”ren arteko harremana berriro nabarmentzen dute. Ez soilik literaturak, baizik eta artean ere, zeinaren erreproduktzioa idatzi zuen Benjaminek

geroago bere saiakera ezagunenean: *Artearen Lana Erreproduktzio Teknikoaren Garaian*. Itzulpena ez da, jada, "lehen mailako" dokumentuaren "bigarren mailako" interpretazio fidel bat; baizik eta, itzulpena galdatzen duten lanetan, originala eta itzulpena transformatzen dira, Idazkun Biblikoen kasuan bezala, zeinak, Benjaminen ustez, itzulpen guztien ideala baitira.

"Itzultzailearen zeregina", iradokitzen du Benjaminek - eta Paul de Manek azpimarratzen duen bezala jatorrizko zeregin alemaniarren (Aufgabe) "errenditu" edo "errendizioa" dakar (geben auf) – ez da originala beste hitzekin errepikatzea, nahiz eta errepikapen hori posiblea izan; aitzitik, "pentsatutako efektu hori bilatu behar da itzulpenaren hizkuntzan, eta honek ekartzen du originalaren oihartzuna".

6. "Gezi gozoak" ezin dezake itzulpen hedatu bat "eskatu", baina sortzen dituen oihartzunek pentsatzera garamatzate nola itzulpen galderak, itzulpen txarrak ,eta itzulezina denak asebetetzen duten bere lana (zeina egokia baita, beharbada, bere izen berak, Txuspo kasu, ez ingelesez ez espainolez baliokiderik ez duen artista batentzat; Poyoren identifikazio zenbaki europarra 18201046-L, eta, era berean, bere azken katalogoaren izenburua dena, Txuspo Poyo itzultzen da?). Irteerarik gabeko galdera honek bereziki egokia ematen du testuak "anima-tzen" dituzten animazio horiei buruz ari garenean. Hau Txusporen lanaren ezaugarri bat izan da bere karrera *The Endless* lanarekin (1994) hasi zuenean. Film hau "Bukaera" hitzari begira dago, film askotatik, idazkera eta hizkuntza desberdinetan hartuta, pantailaren goi aldetik, kanpo aldetik eta barrenetik hegalegiten. Ezaugarri hori bere azkenengo lanetan ere atzematen da, *Crossing Tracks* (bidegurutzeak) barne (2003). Honetan, 2001eko irailaren 11ko eraso terroristen ondoko hilabetetan agerian geratu zen New Yorkeko zirkulazio metropolitarrako Agintariaren *Zerbait Badakusazu, Esazu Zerbait* mantra ergela, behin eta berriz errepikatzen da, metroko ateak ireki eta ixten diren modura.

7. *Zerbait Badakusazu, Esazu Zerbait*. hau abisu bat da, mehatxu politiko zemaiztailearen (eta ausaz aprobetxategi baten) aurrean zelatan egoteko. Zine-hizkuntzara itzuli zenean, animazio hori ikusteko formalitatea edo komenigarritasuna bera zalantzan jarri zuen. "Zerbait esaten baduzu" Txusporena bezalako lan bat galeria batean edo erakusketa batean edo film batean ikusten duzunean "zerbait esaten baduzu", modu desegokian jokatzeko egon zitezke, edo areago, modu arriskutsuan. Baina modu pasiboan edo axolagabean esertzen bazara, irudiak bata bestearen atzean komentatu gabe pasatzen utziz, film kontsumitzaile masifikatu bilakatzeko arriskuan zaude, ohartarazita zaude Benjaminen "Erreproduktzio Teknikoa" saiakeran. Erroka modu kritikoa jokatzeko da, izan ere, "egoera axolagabea" film horrek berez animatzen du, erreproduktzio teknika mugituz. Baina, noiz da egokia "zerbait esatea"? (Zenbait alditan itzulitako saiakera batean, "amaieraraino" oso gutxi irakurriko dutena?)

8. Bat batean nire lagun batek kontaturiko pasadizo batez oroitzen naiz. New Yorkeko metroan zegoen irailaren 11ren ostean, *Zerbait Badakusazu, Esazu Zerbait* leloa zabaldu zenean. Gure arteko gehienon modura, erasotik "onik" atera ginen newyorktar gehienon modura, bera erne zegoen beste bonbardaketa posible baten aurrean – bonbardaketa hau, jakina, errepikatu zen urte pare bat geroago Espainiako trenbide batean, hasieran, politika probetxuagatik "euskal separatistek" egokitu bazitzaie ere. Lagun honek, bat batean, gasolina usai handi bat sumatu zuen metro geltokian, eta zur eta lur geratu zen, zalantzan txartel saltzaileari esan behar zion ala ez (New Yorken txartel saltzaileek haserrekor fama dute) Azenez, adorea bildu eta garitara igo zen. "Gasolina usai ikaragarria dagoela esatera baino ez naiz etorri", esan zion berak. Geltokiko agenteak isilik geratu zen. "Ongi da, seinaleak dio *Zerbait Badakusazu, Esazu Zerbait*, beraz hori arin aiz egiten orain". Txartela saltzaileak eten bat egin zuen, eta orduan erantzun zion, "bertan dio" "Zerbait Badakusazu, Esazu zerbait" ez "Zerbait Usaintzen Baduzu, Esazu Zerbait!"

9. Txartel saltzailea ez zen *Supermana* (eta, Hollywoodland film hollywoodar berrituaren arabera, are George Reeves, berrogeita hamarreko urteetan Amerikako telebistako serietan *Superman* interpretatu zuena, ez zen, inolaz ere, Superman: bere karreraren egoeragatik deprimituta, 1959an bere buruaz beste egin zuen). Baina *Superman* irudi unibertsala, super-heroi amerikar guztiengan dagoena, munduko gainontzekoentzat, inork erdietsi ezin dezakeen maskulinitatea bezala itzultzen da, eta Estatu Batuetako esportaziorik garrantzitsuenak da. "Itzulpen" honi eta munduan duen eraginari erantzun nahi izango balie bezala, Txuspok *Errekuntza Domestikoak* sortu zuen: Heroi Akastunak), 2002ko horma bat, 4000 pospoloz margotuta, *Supermanen* "S" osatuz diamante baten hondorean gainean, eta, emanaldi batean pospoloak piztu zituen. "Lana" emanaldiaren hondar bilakatzen da. Errekuntzak lana Kuban egin zen, Espainiako kolonia izan zena eta setio amerikarrari lotuta denbora luzez (Amerikan ere urperatuta) animatutako "S"aren itzulpen-txar zorrotzena egiten du.

10. Animazio digitala, funtsean, objektu solido eta ukigarria ez duen emanaldi edo eskulturarekin alderatuta desberdina da. Areago, Txuspok, komiki-zale porrokatuak, oraindik marrazten dituen eta ilustrazio "analogikoetan

ikusten diren “animazio” mota horretatik desberdina da. *USA News Today/Hauteskunde amerikarrak 2004*). Egin berri den lan batean, *Etsaitasunezko Inguruneak / Hostile Environments*, (2005) izeneko lan super-teknologikoan, mailuak eta iltzeak, “dantza” egiten dute txalapartaren musika tradizionalarekin, Busby Berkeleyyren zati bitxia dena (21th Century Bilbao!k ekoiztua) film bortitz baten zatia alegia. Batzuetan mailuak olioizko garabi aztoratu bat ematen du, orduan Gober-esque-ren zango anputatua; iltzeak espermatozoo bilakatzen dira, orduan iltze “adiskideak” biltzen ditu ingelesezko eta gaztelerazko hitzak eta esamoldeak letraka esateko (isilarazi, bakarrik, begia begi truk). Denbora osoan, mailuak eta iltzeak erritmikoki kolpatzen dute, gerra originalarekin eta gurutziltzatzearekin ezinbesteko loturak, betiereko piezak, antza, sortuko duen krudelkeria.

11. Danteren Inferno lanean, infernuaren azken mailadia Luziferrek okupatzen du. Honek hiru alde ditu, bat gorria, bat beltza eta bat beilegia, bakoitzak aho bat dauka, eta hauek traidore garrantzitsu bana mastekatzen dute: Brutus, Cassius, eta, aurrean eta erdian, Judas Iskariote. Infernuko mailadi berean, goraxeago, Nimrod erraldoia aurkitzen da; mailadi honetara kondenatu dute Babel Dorrearen eraikuntzan izandako paperagatik. Honen existentzia muturreko harropuzkeriaren erakusgarria da. Dorregileek Jainkoari irain egin zioten eta honek aingeru bat bidali zuen zerutik dorre erraldoi hura suntsitzeko, eta zigor bezala, hizkuntzak aniztu zituen. “Raphael mai amech izabi almi” esan zion Danteri, ulertzen ez duen hizkuntza batean.

12. Teknologia digitalak animazioarentzako muga berria dela ematen du, eta ez dago erabat argi posible edo gomendagarria den atzamar analogikoa atzean uztea betirako. Txusporen azken filmean, *Passenger*, zeinaren izenburuak izenburu bera duen Antonioniren filma burura baitakar, Bilboko kale “erreal” baina antza irrealak filmazio imaginario eta ordenagailu-lagunduentzako kokalekua dira. Hemen, Scotten *Blade Runner* eta Langen *Metropolis* filmak, *Grand Theft Auto* izeneko bideo serietako ordenagailu-generatuen ikonografia bilakatzen dira. Beti gaua den hiriaren irudi beldurtu eta ,antza, hutsaren aurka, Bilboko igogailurik ospe-tsuen, Begoñako igogailua, Txusporen eskuetan zensore bilakatzen da, eta zirrara erdiragarria sortzen du, kartzelako-zaintza. Igogailuak, zeinak (literalki) igo behar baitu (hezkuntza programa baten moduan), gerra gatazkaren agendaren oinarri betea aurreratzeko balio du. Baina hemen, erresumen arteko gezia ez da batere gozoa.

13. “Azkena.”

Nico Israel literatur konparatiboa irakasten du New Yorkeko Hunter Collegen eta halaber, irakaslea ere bada Eleiz-Arte Ikaskuntzarako Zentroan, Bard Collegen. *Outlandish* laneko egilea: *Writing Between Exile and Diaspora* (Stanford-eko Unibertsitateko Prentsa, 2000), Israel idazle kolaboratzailea izan da Artforumen 1995az aurrera eta bere zutabe eta kritikak Bookforumen, Yale-ko kritika-egunkarian eta Fikzio Modernoen Ikaskuntzakoan argitaratu dira.